



MISTERIO HANDI BAT

EGILEA:

Nerea Urbizu

ABESLARIA:

Ana Telletxea

KONTATUKO DIZUET GERTATUTAKOA:
MISTERIO HANDI BAT, HANDI-HANDI BAT!
AMONAREN ETXEAN AURKITU NUEN,
HARRITUTA ORAINDIK JAZOTAKOAREKIN.
ZER OTE, ZER OTE ZER DA?
ZER OTE, ZER OTE ZER DA?
ZER OTE, ZER OTE, ZER OTE?

KAXA MISTERIOTSU BAT IKUSI NUEN
HAUTSEZ ESTALIRIK, GANBARAN GORDERIK.
IREKI EGIN NUEN, TA HORRA EZUSTEA:
KANTARI HASI ZEN, IREKI ORDUKO.
NOLA BA, NOLA BA, NOLA?
NOLA BA, NOLA BA, NOLA?
NOLA BA, NOLA BA, NOLA BA?

BATERIARIK EZ, EZTA PILARIK ERE.
KABLEA BEHARBADA, BAINA ARRASTORIK EZ.
HAU DA MISTERIOA, SORGINKERIA!
IZEN BAT JARRI DIOT: JAKIN NAHI AL DUZUE?
MUSIKA, MUSIKA KAXA,
MUSIKA, MUSIKA KAXA.
MUSIKA, MUSIKA KAXA.
MUSIKA... MUSIKA KAXA.
MUSIKA, MUSIKA KAXA,
MUSIKA, MUSIKA KAXA.
MUSIKA, MUSIKA KAXA.
MUSIKA... MUSIKA KAXA.